

## Egile berrientzako sariak banatu ditu Iruñeko Udalak

■ Urdiroz, Bidador eta Alzuart dira sarituak

Erredakzioa / Iruñea

IRUÑEKO Udalak egile berriei zuzendurik antolatzen duen euskarazko literatur lehiaketako irabazleek, atzo jaso zituzten irabazitako sariak. Narrazio laburrak kontuan hartzen dituen atalean Juantxo Urdirozek hartu zuen lehen saria, *Harri Fiction* lana idazteagatik.

Bertso paperetan, berriz, Mikel Alzuart arizkundarrak idatzitako *Baztan, zure baitan, zure erraietatik* izenburuko lana izan zen saritua. Joxemiel Bidadorrek, azkenik, olerkien ataleko lehen saria jaso zuen *Garoñako gatazkaren bart bezperan egin besta ixila* izenburua duen lanarekin.

Iruñeko Udaletxean egindako ekitaldi berean Sanferminei buruzko kazetaritza lehiaketako eta artista gazteen lehiaketako sariak banatu zituzten. Kazetaritza lehiaketan Televisión Española (TVE) telebistak

jaso zuen lehen saria, *Vivir San Fermín* izeneko lanagatik. Lan hau uztaillaren 9an pantailaratu zuten *Testigo Directo* programan.

Idatzizko prentsa sailean, berriz, Jose Maria Romerak eman zuen lehen saria *La Estafeta* lanaren bitartez eta argazkilaritza berriz Emilio Zazuk, Sanferminetako azken entzierroan bizia galdu zuen estatubatuarraren argazkiagatik.

Iruñeko Udalak artista gazteentzat antolatzen duen lehiaketari dagokionez, Miguel Angel Apeztegiak, Idoia Castañillasek eta David Rodriguezek jaso zituzten sariak eskulturan, argazkilaritza eta pinturan hurrenez hurren.

Sari banaketan, besteak beste, Javier Chourraut Iruñeko alkateak, Joakin Pascal Kultur zinegotziak eta Valentin Redin Kultur arloko zuzendariak hartu zuten parte. X

## Gabon giro goxoan

Eguberriko kantekin diskoa plazaratu du Easo abesbatzak

**D**isketxe sortu berri baten eskutik —aus Art Recordings—, gabon kanta ezagunak dastatzeko aukera ematen duen diskoa plazaratu du Easo abesbatzak. Easo abesbatzaren eskaintza zabal eta oparoaren berri ematen duen diskoa egin nahi izan du Juan Rekarte ekoizleak. Rekarte bera da aus Art disketxearen sortzaile eta arduraduna ere.

Juan Luis Zabala / Donostia

GABON KANTA ezagunak biltzen dituen diskoa kaleratu berri du Easo abesbatzak aus Art disketxe berriaren eskutik. *Haur eder baten bila*, *Aurtxo maite*, *Birjiña maite*, *Ator ator* eta *Adeste fideles* gabon kanta ezagunak entzun daitezke, besteak beste, gabon giro goxoko disko honetan. *Koro Easoren Gabonak* da diskoaren izenburua.

Easo abesbatzaren barruko abesbatza guztiek hartu dute parte diskoaren grabazioan: abesbatza gregorianoa Xabier Irastortzaren zuzendaritzapean, gizonzkoen abesbatza eta ganbara abesbatza Xalba Ralloren zuzendaritzapean, haurren eskolonia Jose Luis Aranbururen zuzendaritzapean, eta Jon Suberbiola, Imanol Arregi, Asier Otegi eta Iñaki Irurzun bakarlari gisa, Xalba Rallo zuzendari nagusi dutela. Easojo abeslariak Juan Jose Menak zuzenduriko Jesus Guridi ganbara orkestraren laguntza izan dute diskoa grabatzean. Oscar Candendo piano joleak eta Loreto F. Imaz klabezin joleak ere parte hartu dute diskoaren grabazioan.

Bi asmo nagusirekin egina dago diskoa, Juan Rekarte ekoizleak azaldu digunez. «Batetik, Easo abesbatzaren malgutasuna erakutsi nahi izan dugu. Easo



Juan Rekartek produzitu du diskoa eta horretarako Art disketxea sortu du. JUAN LUIS ZABALA

abesbatzaren barruan bost abesbatza daude: gizonzkoena, gazteena, haurren eskolonia, gregorianoa eta ganbara abesbatza. Eskaintzaren zabalatasun hori erakutsi nahian, gregorianoan hasi eta Jesus Guridirenganaino iristen den programa diseinatu dugu. Bestetik, Euskal Herrian sortzen ari diren orkestra eta bakarlari onei irtenbidea eman nahi izan diegu. Euskal Herrian oso orkestra onak daude, eta adibide gisa disko honek Jesus Guridi ganbara orkestraren kalitate bikaina ezagutzeko aukera ematen du».

Aita Solerrek 1769an konposatutako *San Jose*, *La Virgen María y el Angel* gabon kanta da diskoak eskaintzen dituen artean aipagarriena Rekarteren ustez. «Inoiz grabatu gabea da, eta musikazaleentzat oso opari polita, dudarik gabe, bi mendetan guttiz ahaztuta egon baita. Cuencako Musika Erlijiosoaren

Institutuaren bidez berreskuratu ahal izan dugu».

«Easo abesbatza proiektu kultural handia izan da beti» • Disko honen bitartez, Easo abesbatza abesbatza bat baino gehiago dela ere erakutsi nahi izan du aus Art disketxeak, Juan Rekartek adierazi digunez. «Easo abesbatza proiektu kultural handia da euskal musikaren munduan garantzi handikoa. Gerra ostean sortu zenean, erbestetik itzultako musikariak bildu zituen Easo abesbatzak, garai hartako orkestra feoiek ez zituztelako erbestetik etorritakoak bere baitan amaitzen. Easo abesbatza beti izan da Euskal Herriaren historiari eta garapenari estu lotutako proiektu kultural handia». «Puzibliko zabal» izan dezake diskoak Rekarteren ustez, «zaletu herrikoia» erakutsi nahi izan du musika zalerik sofistikatuenarengana».

## aus Art, euskal musikarien plaza

DISKETXE berri baten estreinaldia da Easo abesbatzaren *Koro Easoren gabonak* diskoa: aus Art Recordings-ena. «Oso helburu zehatza» du zigilu honek, Juan Rekarte sortzaile eta arduradunak adierazi digunez: «Euskal Herriko musikariek interpretatutako musika argitaratzea».

Rekarteren ustez, Euskal Herriko musika klasikoaren esparruan dagoen hutsune bat bete du aus Artek. «Euskal Herriko oso musikari onak daude, talentu handikoak, baina ez dute aurkitzen irtenbiderik beren lana plaza-

ratzeko. Guk hemengo jendearekin egindako musika plazaratuko dugu, hemengo interpretariei emango diegu aukera». Euskal Herriko zein kanpoko musika emango du aus Artek, baina beti euskal musikariek interpretatua. «Hori da sorreratik dugun ezaugarri bat», esan digu Rekartek. «Euskal Herriko altxor musikal handia dago, sinestezina, eta, nahiz eta badaigun euskal musika klasikoak erosle gutxi dituela euskal musika hori kaleratzen ausartu gara, egin beharreko lana dela iruditzen zai- gularako. Hori adierazi

nahi du, besteak beste, zigiluari ezarri diogun izenak». Zigilu berriak orain arte izan duen harrearekin oso pozik dago Rekarte. Ideia oso ona iruditu zaie musikaren munduan dabil- tzanei, eta diskoa ongi saltzen ari da.

Easo abesbatzaren diskoa IZ disketxearen estudioetan grabatua da, eta IZrekin izan dituen harremanekin ere pozik agertu da Juan Rekarte. Oraindik argitaratu gabe dauden beste hainbat grabazio egin ditu aus Artek horretarako dituen bitartekoe- kin, «baina disko hau egiteko guk ez ditugun

erraztasun teknikoak behar genituen, eta horregatik jo dugu IZ-koengana».

«Produktua oso-osorik Euskal Herriko egina da, baita kopiak ere», azpimarratu digu Rekartek.

Bere disketxeak kaleratutako dituen hurrengo diskoek buruz ez digu gauza askorik aurreratu nahi izan Rekartek. «oraingoz proiektuak baino ez direlako, eta ez dakigulako ziur aterako diren ala ez». Nolanahi ere, Aita Donostiaren lan batzuk bilduko dituen diskoa kaleratzeko asmoa dutela aurreratu digu. X

Kultur Udal Patronatuaren eskeintza Gabonetarako:  
La oferta del Patronato Municipal de Cultura para estas Navidades:

M U S I K A

Aleak 20.000tik 20.000tik  
VICTORIA EUGENIA  
G O T Z O K I A

20:00etan



Oskorri  
Landalan

Flaco Jiménez, Kepa Junkera eta Jacky Berecoetcheak parte hartu zuten azken lanaren aurkezpena Donostian.

Butaka, palkoa, platea	1.600
Balkoia	1.200
Anfiteatroa	1.000

A N T Z E R K I A

Abenduak 27.000tik 27.000tik

VICTORIA EUGENIA  
G O T Z O K I A

12:00 eta 17:00etan



TXIRRI, MIRRI, TXIRIBITON

sarrerak	1.000
haurrak	600
Superbat kluba	300

KULTUR  
UDAL  
PATRONATUA